

Desadostasunaren dekretua

Testu berriak konkurrentzia lehia mantentzen du eta pinuaren gaitzak jota, zuhaitzak moztu eta ondoren eukalipto landatu dutenei diru laguntzak kentzen dizkie

Intsinis pinuaren gaitzak jota zeuden zuhaitzen laguntzak eskatu aurretik, derrigorrezkoa zen lehenago lursaila birlandatzea. Horrela zioen 2019ko dirulaguntzen dekretuak. Aurrekontu arazoak direla medio, **konkurrentzia lehiakorra** mantentzeak zalantzak sortzen dizkio baso jabeari eta horrek, era berean, ez dio laguntzen birlandaketarako beharrezkoak diren inbertsioak gauzatzen, diru galera handiak izan baitituz aurretik.

Bestalde, 2019ko dekretuak ezartzen zituen baldintzak betez, pinuaren ondoren eukalipto jarri dutenek, ezusteko handia izan dute aurtengo dekretu berria ikustean, diru laguntzarik gabe geratuko direla jakin berri baitute. GEBEko zuzendaritzaren ustez, egoera horrek espezie zehatz horren irudiari bidegabeko kaltea eragiten dio, izan ere, Gipuzkoan bere tokia baituelako.

Aipatu behar dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dituela bereak egin Gipuzkoako Baso Elkarteak dekretuaren zirriborroari aurre egindako ekarpenak, nahiz eta bi aldeek abandonua eta **deforestazioa** ekiditea dugun helburu. Ondorioz, argi dugu bion arteko desadostasunak helburu bera lortzeko erabili beharreko erremintatan dagoela. Hori horrela, Gipuzkoako Baso Elkarteak zenbait bilera egiteko deia luzatu dio Aldundiari. Gure sektorea itotzen ari diren arazoak era ordenatuan eta tentuz aztertzeko “beharrezkoak” ditugu bilera horiek. Basozaleon biziraupena dago jokoan eta irtenbidea bilatzeko erreminta horiek adostu beharrean gaude.

GEBEKO zuzendaritzatik zera adierazi nahi dizuegu, egoera honetara eramán gaituzten gertakarien sekuentzia. Ezin ahaztu ere, Gipuzkoa duela bost urte baino gehiago hasi zela zuhatzei kalte egiten dieten gaitz edo banden astindua jasaten. Baso-pandemia horri irtenbidea emateko askotan eskatu dugu Administrazio desberdinen parte-hartzea. Covid-19aren epidemiarekin automatikoki hainbat sektoreei eman zaizkien babes eta laguntzak, guretzat urruti geratu dira. Ezinezkoa izan da. Hona hemen azken urteko gertakarien sekuentzia:

2011-2015 legegintzaldia latza izan zen. Ustezko ingurugiroaren mesedean abiatutako baso politika zorrotza jasan genuen eta gure eskaerak ez ziren kontuan izan, inola ere ez. Biodibertsitatea era oso berezian ulertuta, zorrotz, basoan egin beharreko edozein ekintza edo lan erabat baldintzatuta geratzen zen. Mugatuta.

Urte horietako laguntza dekretuek kudeaketa eza eta abandonua bilatzen zuten, espezie autoktonoetara transizioa egiteko helburuarekin. Birlandaketak

egiteko dirulaguntzak ere erabat baldintzatuta zeuden, intsinis pinua bera eta itsas-pinua baztertzen eta Natura 2000 Sarearen baitan zeuden lursailetan ere mugapen zorrotzak ezarriz.

Autonomi-Erkidego mailan ere Komunitate Intereseko Tokiak kudeatzeko planak eratu zituzten eta horiek ere betiko hainbat baso aktibitate oztopatzen zituzten eta ustiapen ekonomiko kutsua zuen edozein lan edo ekintza baztertu

2015eko hauteskundeetan egoera aldatu egin zen. 2016ko bukaera aldera, Pagoetako Mahaia deritzona sortu zen lehen sektorea biziberritzeko asmoz. GEBEk ere bere ardatz estrategikoak azaldu zituen. Baso-lanak aurrera eramateko eta kudeaketa mantentzeko berme juridiko eta ekonomikoak eskatzen genituen. Helburua, basojabea bere lurak kudeatzen jarraitzea zen. Abandonuari aurre egitea, alegia.

Baina pinuaren gaitza etorri zitzaigun gainera eta kalte izugarriak eragin dizkigu. Foru Aldundiak ahalegin handia egin zuen ez ohiko diru-funtsak lortzeko. Datuek agerian uzten dute hori: 2014an 1.199.114 euroko aurrekontua zuen dirulaguntzen deialdiak eta aurten, adibidez, 3.682.786. % 300eko hazkundera, alegia. Ez ohiko funtsa gehiago ere lortu dira azken deialdietan eta urteko dirulaguntzak ia bost milioi eurora iritsi dira.

Baina ahalegin horrek guztiak ezin izan zuen uxatu aipatutako konkurrentzia lehia. Gauza askoren pilatzeak ekarri gaitu hona. Heldu gabeko egur infektatuen arraseko mozketarako eman ziren hainbat baimen eta epearen barruan ezin bukatu zirenak... horrek laguntzak Ogasunera itzultzea eragin zuen; hainbat baso jabe ere, gaixotutako pinuak bota eta gero, laguntza gabe geratu ziren aurrekontua bukatu zelako. Eskaera horiek 2019an berriro eskatzeko baimena eman zuten, baina sortutako egoerak zalantzak sortu zizkien baso jabe askori. Kezkak. Eta gaur egun irauten dute.

Banda marroiak sekulako astindua eman zuen 2018an, ez bakarrik Gipuzkoan. Nordox-ekin fumigatzea eskatu genuen 2019an baina Estatuko gobernuak ez zuen tratamendua onartu eta horrek polemika sortu zuen. Haibat Udal ere mendi publikoetan Nordoxekin egindako tratamendua debekatu zuten eta talde ekologistek ere sekulako presioa eragin zuten. Baina Nordoxekin fumigatzea erantzun egokia eta eraginkorra dela baieztatu dute Neiker-eko ikerlariak eta argi geratu da tratamendu honek, erabili behar den neurrian, ez duela inongo eragin okerrik ingurugiroan.

2019an aldaketa eman zen dirulaguntzetan. Hiru alor dituzte kontuan:

- Belaunaldien arteko erreleboa eta sektorearen gaztetzea
- Ustiaketen tamaina
- Eta landa ingurunearekiko lotura

Planteamendu berria egokitzen jotzen du GEBeko zuzendaritzak eta 2019ko Urtarrilaren 24ko dekretuaren zirriborroa aurkezten du. Ez genuen erantzunik izan.

2019ko maiatzaren 6an Markel Olano diputatu nagusiarekin bildu ginen eta gure kezka agertu genizkion. Neurri bereziak hartzen ez badira, baso jarduera bertan behera uztea gerta daiteke eta pinuaren gaitzari aurre egiteko tratamenduaren (Nordox) beharra azaltzen diogu. Gure arazoekiko "sentsibilitatea" bazutela esan zigun eta finantzaketa bermatzeko ahaleginak egingo zituztela ere. Azaroan berriro biltzekotan geratu ginen.

Maiatzaren 7an (2019), dirulaguntzen zirriborroa helarazi zigun Aldundiak eta aldaketa garrantzitsuak jasotzen zituen. GEBEk alegazioak aurkeztu eta Mendi zuzendaritzarekin bildu zen.

Hauek dira desadostasunaren ardatz nagusiak:

- Gaixotutako zuhaitzei laguntzak kendu nahi zizkieten, baldin eta lursail horretan ondoren eukalipto birlandatzen bazen. Zigorra zela iruditu zitzaigun.
- Gaixotutako zuhaitzen laguntzak jasotzeko 67 urtez gorako baso jabeak eta azpikoak bereizi nahi zituzten, eszepzio batzuekin. Hau da, gazteei dirulaguntza handiagoak eman nahi dizkete. GEBeko zuzendaritzaren ustez, neurri horrek ez zuen ezer aportatzen.
- Laguntza eskaera ezin egitea birlandaketa egin aurretik, konkurrentzia lehia indarrean dagoela. Zuzendaritzaren ustez aurrez birlandatzea eta dirulaguntza eskaera atzeratzea ez da beharrezkoa, izan ere, Aldundiak baditu erremintak, baso jabeak birlandaketa burutuko ez balu, dirulaguntza kendu eta berreskuratzeko. Zuzendaritzak uste du erabaki horrek baso jabea inbertsio handiak aurreratzera behartzen duela eta horrek abandonura eraman dezakeela. Mendiko Foru Arauak birlandaketa, aurreko zuhaitzak moztu eta ondorengo bi urteren barruan egitea behartzen du eta Aldundiak baditu erreminta fiskalak, behar balitz, aurreratutako dirulaguntza hori berreskuratzeko. Basozainek baso jabeen igorritako mezuek ere ez dutela mesede egiten azaltzen diogu Foru Aldundiari.
- Bestalde, ingurugiroarekiko lotura neurtzeko garaian, Urteko Lan Unitatea erabiltzeko sistema ez dugu ulertzen. Izan ere, basogintzako Urteko Lan Unitatea kontuan ez delako hartzen.

Aldaketa bakarra lortu genuen orduan, 2019an. Lehenengo atala, alegia, gaixotutako pinuaren dirulaguntza jaso zitekeen, nahiz eta ondoren eukalipto birlandatu.

2020an gaude. Otsailaren 17an aurtengo dekretuaren zirriborroa jaso genuen. 2019ko dekretuaren berdina zen, baina oraingoan berriro eukalipto

birlandaketak ekidin nahi dira. Eukaliptoak birlandatuz gero, ez dago aurreko urtean kendutako pinu gaixorako laguntzarik. Otsailaren 25ean lehen bilera bat izan genuen eta jarraian, beste bat martxoaren 5ean. Eta azken honetan, neurri horrekiko desadostasuna erakutsi genion Aldundiari. Gainera, gai honen inguruan bilera monografiko bat egitera gonbidatzen ditugu.

Martxoaren 16an, aldiz, Covid-19aren pandemia dela eta Alarma egoera dekretatzen da eta ondorioak berehalakoak dira jarduera ekonomiko guztietan. Basogintza funtsezko lantzat jotzen du Gobernuak eta lanak ez dira gelditzen.

Apirilaren 14an, GEBEk 2020ko laguntzen dekretua moldatzeko proposamen bat luzatzen dio Aldundiari, aurretik jasotako zirriborroan ikusitakoa kontuan harturik. Dirulaguntzen dirua aurreko urteen antzera mantentzeko proposamenak azaltzen ditugu.

Maiatzaren 12an erantzuna jaso genuen. GEBEk egindako proposamenak ez dituzte onartzen. Eta eukaliptoen inguruko neurrian berresten da Aldundia. Ez da pinuaren gaitzerako laguntzik egongo, baldin eta ondoren eukaliptoak birlandatzen bada.



GIPUZKOAKO
BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA